

Aurrerapauso bat eman du bere eraldaketa digitalean**EROSKI-REN APLIKAZIO BERRITUAREKIN,
ERABILTZAILEAK PERTSONALIZATU EGIN AHAL
IZANGO DU HURA, ETA DENDETAN EROSKI
CLUBEKO BAZKIDE GISA IDENTIFIKATU**

- **EROSKI Club txartelaren bertsio digitala dakar; horrekin, Bezero Bazkide gisa identifikatzen ahalko da sakelakoaren bitartez, txartel fisikoa berekin izan gabe ere**
- **Gainera, EROSKI Club Mastercarden webera daraman lotura-botoi bat du; horrela, kreditu txartelarekin zerikusia duten kontsultak eta kudeaketak egin ahalko dira**
- **Erabiltzaileek sarrerako orria pertsonaliza dezakete gogoko funtzioen ikonoekin.**

Elorrio, 2017ko irailaren 4a.- *EROSKI*k pauso bat eman du bere eraldaketa digitalean, eta EROSKI Clubek Bezero Bazkideentzat prestatua duen aplikazioa berritu du; horrela, erosoago erabili ahalko dira haren funtzionaltasunak.

IOS eta Android sistemetara egokituta dago, eta urtebete pasa darama martxan. Erabiltzaileek hiru milioi eta erditik gora interakzio izaten dituzte hilean harekin. Bezero Bazkideekin etengabe komunikatuta egoteko balio du, eta haren funtzioen artean dago norbere ohiko dendatako eskaintzak kontsultatzea, erosketen zerrenda egitea eta erabiltzailearengandik hurbilena dagoen EROSKIren denda aurkitzea.

"Teknologia berriak direla medio, kontsumitzaileak lehen baino gehiago eskatzen du. Proposamen multikanal bat eta arreta pertsonalizatua espero ditu, eta EROSKI Clubek ematen du multikanaltasun horretan aurrera egiteko bidea, bezeroa ezartzen baitu strategiaren erdigunean. EROSKIko hornitu egin gara teknologia eta gaitasun aldetik, hartara erantzun bat emateko on line kanalen erabilera gero eta handiagoari, eta prest gaude beste pauso bat emateko gure eraldaketa digitalean. Hala, bere itxaropenetara hobeto egokitzen den proposamen batekin erantzungo diogu kontsumitzaileari, irtenbide berritzaile batekin", azaldu du EROSKIren Marketin zuzendariak, Eva Ugartek.

Eguneraketan artean, hor dago hasierako orriaren pertsonalizazioarena. Berritasun honekin, aplikazioa egokitu egingo da erabiltzailearen hobespenetara, eta funtzio berriak ekarriko ditu, hala nola denden bilaketarena eta EROSKIrekiko kontaktua.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
ÉDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKI Club fidelizazio txartelaren bertsio digitala

Eguneraketak beste berritasun bat ere badakar, EROSKI Club txartelaren bertsio digitala, alegia; horrekin, Bezero Bazkideek beren burua identifikatu ahalko dute dendan, txartelik erakutsi gabe ere, zuzenean sakelakotik. Gaur egun, EROSKI Clubeko 100.000 bazkidek baino gehiagok erabiltzen dute sakelako aplikazio hau. Hain zuzen, aplikazioak txartelaren bertsio digitala erakusten du EAN kodearekin, eta zuzenean irakur daiteke ordainlekuko eskanerretik. *"Funtzio berri honekin, espero dugu Bezero Bazkide ugarien eskariari erantzuna ematea. Haren bitartez, errazagoa izango da EROSKI Club txartelak ematen dituen abantailak aprobetxatzea"*, esan du Eva Ugartek.

Gainera, eguneraketak beste berritasun bat dakar, EROSKI MasterCarden webera jotzeko lotura-botoi bat izango baitu. Hor, erabiltzailea identifikatu egin ahalko da txartelaren titular gisa, eta kreditu txartelarekin zerikusia duten kontsultak eta kudeaketak egin ahalko ditu.

400.000 kupoi hilabetera aktibatua

Funtzio horiek guztiak izango ditu aplikazioak lehendik zeudenak kendu gabe, eta horrek efizientea, arina eta erraz erabiltzeko modukoa egiten du. Erabiltzaileek modu erosoan aktiba ditzakete beharpen digital pertsonalizatuak, noiznahi eta nonahi. Eta eskaintzak, diru-saldoa eta Travel Clubeko puntu kopurua kontsultatu ahal dituzte. Hilero-hilero, 400.000 beharpen-kupoi aktibatzen dira aplikazioaren bitartez.

EROSKI Cluba oinarrizko elementua da Zurekin ereduan, kooperatiba bere jarduera komertziala eraldatzeko bultzatzen ari den horretan. Bezero Bazkideek kanalen bitartez parte hartzea funtsezkoa da kooperatibak bere dendak etengabe hobetzeko martxan duen estrategian, non helburua den bezeroari aktiboki entzutea eta proposamen komertziala bezeroen gogara eta ingurune lehiakorrera egokitzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)